



BELDURRARI



Doinua:

*Zure bular politik
Zortziko txikia*



**Beñat
Gaztelumendi
Arandia**

Ai, beldurra bakarrik gaude **azkenean** gelan, autobusean, kalean, **trenean** ez didazu zauririk sortzen **barrenean** parez pare begira jartzen **naizenean**.

Zer ote zaren ez da erraza **jakiten**: zakur handi bat dena nire bila **irten** nahiz sabel barrenean duzun **eragiten** zaunkak zaunka ez duzu hozkarik **egiten**.

Itzal ilun bat zara nigana **begira** auto beltz bat igoa espalo **erdira** soka bat eztarrian tira eta **tira...** Beldurrik ez dutenak ausartak al **dira?**

Agertzen zara gauak direnean **laino**: sentiarazten nauzu txiki, ahul, **ñaño**. Nahiz parean zutitzen zaren **zeruraino** urruntzean ez zara koskatxo bat **baino**.

Orain beldurra diet hainbat **harremani** entzuten ez ditudan hamaika **esani...** Dardarka jarri arren azal eta **mami** nirekin zaramatzat baina ez **zara ni**.

Beldurra diot tunel ilun, luze **horri** egunsentiak jaiki direnean **gorri** azkar ibiltzen zara korri eta **korri**: behin joaten zara eta bi aldiz **etorri**.

Zurekin aurkitzea hain arrunta **baitzen** nahiz haseran indarrak zitzaizkidan **ahitzen** zu sentitu arren dut aurrera **jarraitzen** zuri esker baitakit zein ausarta **naizen**.

Beti ez dut ematen pausoa **seguru** baina behin ipinita biok **buruz buru** denborak hurbileko egin baikaitu **gu** elkarrekin bizitzen ikasiko **dugu**.

Beldurra ez da umeen gauza bat, ez eta koldarrena ere. Beldurra bizitza osoan izaten dugu lagun.

-Nik zeri diot beldurra?

-Nire bizitzan beldurrik handiena sentitu nuen egoera zein izan zen? Eta nola erreakzionatu nuen?

-Galdetu diezaiegun etxeko helduei: umetan zeren beldur ziren? Orain zeren beldur dira?